

Bizkaiko Foru Aldundiaren \_\_\_\_/2017 FORU DEKRETU PROIEKTUA,.....ren .....(e)koa, zeinaren bidez tributuen arloko zenbait erregelamendu 2017ko apirilaren 12ko 1/2017 Foru Araura egokitzen diren; arau horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributuzko sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 2015eko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzen da.

Bizkaiko Batzar Nagusiek, orain dela gutxi, 1/2017 FORU ARAUA onetsi dute, apirilaren 12koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzeko dena.

Foru-arau horrek, izenburuak berak adierazten duenez, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributuzko sisteman Euskal Zuzenbide Zibilari lotuta dauden zerga nagusiak Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 2015eko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzeko helburuarekin sortu da (lege hori 2015eko urriaren 3etik dago indarrean), eta, horrenbestez, aldaketak dakartza Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren eta Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren foru-arauetan zein Bizkaiko Lurralde Historikoaren Tributuzko Sistema Euskal Herriko Foru

PROYECTO DE DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia \_\_\_\_/2017, de de , por el que se adaptan varios Reglamentos de carácter tributario a la Norma Foral 1/2017, de 12 de abril, de adaptación del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia a la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco

Recientemente las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado la Norma Foral 1/2017, de 12 de abril, de adaptación del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia a la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco.

Esta Norma Foral como su título indica nace con el objetivo de adaptar los principales impuestos del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia vinculados al Derecho Civil Vasco a la nueva Ley 5/2015, de Derecho Civil Vasco en vigor desde el 3 de octubre de 2015 introduciendo modificaciones en las normas forales del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre el Patrimonio, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana y en la Norma Foral 7/2002, de 15 de octubre, de adaptación del



Zuzenbide Zibilaren berezitasunei egokitzen duen 2002ko urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauan.

Sistema Tributario del Territorio Histórico de Bizkaia a las peculiaridades del Derecho Civil Foral del País Vasco.

Hartutako neurri horien guztien ondorioz, bada, arau horiei lotutako erregelamenduak egokitu behar dira orain.

Las nuevas medidas adoptadas conllevan ahora la adaptación de los reglamentos asociados a las normas mencionadas.

Foru-dekretu honek 4 artikulua ditu, eta haietan jasoko dira honako arau hauek egingo diren aldaketak: Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, 2002ko abenduaren 3ko 183/2002 Foru Dekretua, urriaren 15eko 7/2002 Foru Araua garatu zuena (foru-arau horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu zen) eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zein Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren erregelamenduak.

El presente Decreto Foral consta de 4 artículos comprensivos de modificaciones en el reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, en el Decreto Foral 183/2002, de 3 de diciembre, por el que se desarrolla la Norma Foral 7/2002, de 15 de octubre, de Adaptación del Sistema Tributario del Territorio Histórico de Bizkaia a las peculiaridades del Derecho Civil Foral del País Vasco y en los Reglamentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduari dagokionez, garatu egiten da komisarioak duen komunikazio-betebehar bat, alegia, Zerga Administrazioari komunikatu beharrekoa testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspeneko ondare-elementuen inbentarioan alargunak edo bizirik dirauen izateko bikotekideak egindako xedapen-egintzen ondorioz gertatzen diren aldaketak, baldin eta ondare-aldaketa horiek ez

En relación con el Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones se desarrolla la obligación del comisario de comunicar a la Administración tributaria las alteraciones producidas en el inventario de los elementos patrimoniales que formen parte de la herencia pendiente del ejercicio del poder testatorio, como consecuencia de los actos de disposición que se realicen por el cónyuge viudo o viuda o miembro sobreviviente de la pareja de hecho,



badute eragiten Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena. Komunikazio hori Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru-agindu bidez zehazten duen eredu, epe eta lekuan egin behar da.

2002ko abenduaren 3ko 183/2002 Foru Dekretuaren kasuan (foru-dekretu horrek urriaren 15eko 7/2002 Foru Araua garatu zuen, eta foru-arau horren bidez, berriz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu zen), dekretu hori egokitu egiten da 7/2002 Foru Arauak ekarri zituen aldaketetara, batez ere testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspenak ondare-elementuen eskualdaketa dela-eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergan duen tributazioari dagokionez, eskualdaketa horiek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena eragiten ez duten kasurako. Halaber garatzen dira salbuespenetarako zenbait kasu ere.

Horrez gainera, berriro ezartzen da testamentu-ahalordea erabili gabe duten jaraunspenak Ondarearen gaineko Zergan beti deklaratzeko betebeharra, eta zenbait arau-erreferentzia egokitzen dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan egindako azken erreformak ekarritako aldaketen ondorioz.

cuando dichas alteraciones no impliquen el devengo del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones. Esta comunicación se realizará mediante el modelo y en el plazo que se determine por Orden Foral del diputado foral de Hacienda y Finanzas.

En referencia al Decreto Foral 183/2002, de 3 de diciembre, por el que se desarrolla la Norma Foral 7/2002, de 15 de octubre, de Adaptación del Sistema Tributario del Territorio Histórico de Bizkaia a las peculiaridades del Derecho Civil Foral del País Vasco, se adapta a las modificaciones introducidas en la Norma 7/2002 mencionada, básicamente en relación con la tributación de la herencia pendiente del ejercicio del poder testatorio en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana de las transmisiones de elementos patrimoniales que no supongan devengo del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones y se desarrollan algunos supuestos de exención.

Asimismo, se reestablece la obligación de declarar, en todo caso, en el Impuesto sobre el Patrimonio de las herencias pendientes del poder testatorio y se actualizan algunas referencias normativas como consecuencia de los cambios introducidos en la última reforma del Impuesto sobre la Renta de las Personas



Físicas.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren erregelamenduetan, berriz, egiten diren aldaketa bakarrak arau-erreferentziak eguneratzeko eta zuzenketa teknikoak egiteko dira.

En relación con los Reglamentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados únicamente se realizan actualizaciones de referencias normativas y de carácter técnico.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Ondorioz, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2017ko..... ren .....(e)ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en su reunión de de de 2017,



### XEDATZEN DUT

1. artikulua. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015eko apirilaren 21eko 58/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori.

Aldaketa hauek egiten dira Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduan, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015eko apirilaren 21eko 58/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen:

**Bat.** Berridatzi egiten da 2. artikuluko bigarren paragrafoa, eta honela geratu da idatzita:

«Aurreko lerroaldean ezarritakoa ezingo zaie aplikatu jarauntsi bidezko eskuraketei, baldin eta eskuraketok eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-itunen ondorio badira, edo oinordetza-eskubideei uko egiteko oinordetza-itunen ondorio badira, edo komisarioak testamentu-ahalordea erabiltzetik datozen egintzen ondorio badira, edo ahalorde hori iraungitzeko bestelako arrazoen ondorio badira, azken egintza horiek hartzen duten forma zeinahi dela ere.»

**Bi.** Bosgarren eta seigarren paragrafoak gehitzen zaizkio 17. artikuluari, eta honela geratu dira idatzita:

### SE DISPONE

Artículo 1. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 58/2015, de 21 de abril.

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 58/2015, de 21 de abril:

**Uno.** Se da nueva redacción al párrafo segundo del artículo 2, que queda redactado en los siguientes términos:

“Lo dispuesto en el párrafo anterior no resultará de aplicación a las adquisiciones hereditarias que sean consecuencia de pactos sucesorios con eficacia de presente, de pactos sucesorios de renuncia a los derechos sucesorios o de los actos que resulten de la utilización del poder testatorio por el comisario o de cualquier causa de extinción de dicho poder, cualquiera que sea la forma que adopten estos últimos.

**Dos.** Se añaden dos nuevos párrafos quinto y sexto al artículo 17, que quedan redactados en los siguientes términos:



«Halaber, komisarioak Zerga Administrazioari komunikatu behar dizkio testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspeneko ondare-elementuen inbentarioan alargunak edo bizirik dirauen izateko bikotekideak Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 2015eko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera egindako xedapen-egintzen ondorioz gertatzen diren aldaketak, baldin eta ondare-aldaketa horiek ez badute eragiten Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena.

Komunikazio horretan identifikatu behar da zer ondasun eta eskubide eskualdatzen den eta, hala badagokio, zer ondasun eta eskubide eskuratzen diren haien orde. Komisarioak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru-agindu bidez zehazten duen eredu, epe eta lekuan komunikatuko ditu aurreko paragrafoan aipatzen diren aldaketak. Aitorpen informatibo hori telematikoki aurkeztu ahal izango da.»

**2. artikulua.** 2002ko abenduaren 3ko 183/2002 Foru Dekretua aldatzea; foru-dekretu horrek urriaren 15eko 7/2002 Foru Araua garatu zuen, eta foru-arau horren bidez, berriz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide

“Asimismo, el comisario deberá comunicar a la Administración tributaria las alteraciones producidas en el inventario de los elementos patrimoniales que formen parte de la herencia pendiente del ejercicio del poder testatorio, como consecuencia de los actos de disposición que realice el cónyuge viudo o miembro sobreviviente de la pareja de hecho de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 43 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, del Derecho Civil Vasco, cuando dichas transmisiones no impliquen el devengo del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

La citada comunicación, deberá expresar la identificación de los bienes y derechos que se transmitan y, en su caso de los bienes y derechos que se adquieran en sustitución de los mismos. El comisario comunicará las alteraciones a que se refiere el párrafo anterior en el modelo, plazo y lugar que se determine por Orden Foral del diputado foral de Hacienda y Finanzas. La presentación de esta declaración informativa se podrá realizar mediante la utilización de medios telemáticos.”

**Artículo 2.** Modificación del Decreto Foral 183/2002, de 3 de diciembre, por el que se desarrolla la Norma Foral 7/2002, de 15 de octubre, de Adaptación del Sistema Tributario del Territorio Histórico de Bizkaia a las peculiaridades del Derecho Civil Foral del País



#### **Zibilaren berezitasunetara moldatu zen.**

Aldaketa hauek egiten dira 2002ko abenduaren 3ko 183/2002 Foru Dekretuan (foru-dekretu horrek urriaren 15eko 7/2002 Foru Araua garatu zuen, eta foru-arau horren bidez, berriz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu zen):

**Bat.** Berridatzi egiten da 7. artikuluko 1. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«1. Titulu honen bidez zenbait erregelamenduzko xedapen arautzen dira, garatzearen testamentu-ahalordea erabili gabe duten jaraunspenek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, Ondarearen gaineko Zergan eta Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergan tributatzeko 2002ko urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauaren II. tituluan ezarritakoaren arabera duten araubide berezia (foru-arau horrek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunei egokitzen du).

**Bi.** Berridatzi egiten da 8. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«8. artikulua. Zenbait ondare-irabazi eta -galeraren salbuespena.

#### **Vasco.**

Se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Foral 183/2002, de 3 de diciembre, por el que se desarrolla la Norma Foral 7/2002, de 15 de octubre, de Adaptación del Sistema Tributario del Territorio Histórico de Bizkaia a las peculiaridades del Derecho Civil Foral del País Vasco:

**Uno.** Se da nueva redacción al apartado 1 del artículo 7, que queda redactado en los siguientes términos:

“1. El presente título regula las disposiciones reglamentarias de desarrollo del régimen especial de tributación en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en el Impuesto sobre el Patrimonio y en el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana de las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio establecido en el Título II de la Norma Foral 7/2002, de 15 de octubre, de Adaptación del Sistema Tributario del Territorio Histórico de Bizkaia a las peculiaridades del Derecho Civil Foral del País Vasco.”

**Dos.** Se da nueva redacción al artículo 8, que queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 8. Exención de determinadas ganancias y pérdidas patrimoniales.



1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita daude alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspenaren parte den ohiko etxebizitza eskualdatuz gero lortutako ondare-irabazi edo -galerak, baldin eta Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 2015eko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera egindako xedapen-egintzen ondorioz lortzen badira, eta eskualdaketa horrek ez badu eragiten Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena.

Zenbaki honetan ezarritakoaren ondorioetarako, salbuespena aplikatzeko beharrezkoa izango da, batetik, alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea kausatzailearekin batera bizi izana ohiko etxebizitza horretan kausatzailea hil aurreko urte bietan eta, bestetik, beharrezkoa izango da eskualdaketan lortutako zenbatekoa alargunarentzat edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearentzat ohiko etxebizitza izango den beste etxebizitza bat eskuratzeko erabiltzea.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada besterentzean jasotako zenbateko osoa baino, ondare-irabazi osotik benetan inbertitutako zenbatekoari dagokion parte proportzionala bakarrik egongo da kargapetik salbuetsita.

1. Estarán exentas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas las ganancias o pérdidas patrimoniales obtenidas en la transmisión de la vivienda habitual que forme parte de la herencia pendiente del ejercicio del poder testatorio, del cónyuge viudo o miembro sobreviviente de la pareja de hecho como consecuencia de los actos de disposición a que se refiere el artículo 43 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco y siempre que dicha transmisión no implique el devengo del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

A los efectos de lo dispuesto en este apartado será requisito para la aplicación de la exención que el cónyuge viudo o miembro sobreviviente de la pareja de hecho hubiera convivido con el causante en la vivienda habitual durante los dos años anteriores al fallecimiento del causante y que el importe obtenido en la transmisión se reinvierta en la adquisición de una nueva vivienda habitual para el cónyuge viudo o viuda o miembro sobreviviente de la pareja de hecho.

En el caso de que el importe de la reinversión fuera inferior al total obtenido en la enajenación, solamente se excluirá de gravamen la parte proporcional de la ganancia patrimonial que corresponda a la cantidad efectivamente invertida.





2. Halaber, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita daude Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko 2015eko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera egindako xedapen-egintzen ondorioz alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspenaren parte den ohiko etxebizitzaren kostu bidezko eskualdaketa egitean edo ordainean ematean lortutako ondare-irabaziak, baldin eta, batetik, eskualdaketa edo ordainean ematea zerga horri buruzko foru-arauaren 43. artikuluko b), c) eta e) letretako kasuetan egin bada eta, bestetik, eskualdaketa horrek ez badu eragiten Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena.

Zenbaki honetan ezarritakoaren ondorioetarako, salbuespena aplikatzeko beharrezkoa izango da, batetik, alguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea kausatzailearekin batera bizi izana ohiko etxebizitza horretan kausatzailea hil aurreko urte bietan eta, bestetik, beharrezkoa izango da eskualdatzailea 65 urtetik gorakoa izatea edo mendekotasun-egoera larrian edo mendekotasun oso larrian egotea eskualdaketa egiten den unean.

1. Etxebizitza ohikotzat hartzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko

2. Asimismo estarán exentas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas las ganancias patrimoniales obtenidas en la transmisión onerosa de la vivienda habitual o de la dación en pago de la misma en los supuestos a que se refieren las letras b), c) y e) del artículo 42 de la Norma Foral del Impuesto, que forme parte de la herencia pendiente del ejercicio del poder testatorio, del cónyuge viudo o miembro sobreviviente de la pareja de hecho como consecuencia de los actos de disposición a que se refiere el artículo 43 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco y siempre que dicha transmisión no implique el devengo del Impuesto sobre Sucesiones correspondiente.

A los efectos de lo dispuesto en este apartado será requisito para la aplicación de la exención que el cónyuge viudo o miembro sobreviviente de la pareja de hecho hubiera convivido con el causante en la vivienda habitual durante los dos años anteriores al fallecimiento del causante y en su caso, que sea mayor de 65 años o este en situación de dependencia severa o gran dependencia en el momento en que se produzca la citada transmisión.

1. Para la calificación de la vivienda habitual se estará a lo dispuesto en el apartado 8 del



Foru Arauaren 89. artikuluko 8. zenbakian zein zerga horren erregelamenduko 67. artikuluan xedatutakoa hartuko da aintzat.

**Hiru.** Berridatzi egiten da 9. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

#### **9. artikulua. Zerga-oinarria zehaztea.**

1. Testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspenari dagokion zerga-oinarria zehazteko, ekonomia-jardueren etekinak testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspenak lortuak direla ulertuko da beti, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 59. eta 60. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta ez da kontuan hartuko ea testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspen horrek ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean esku hartzen duen ala ez ekonomia-jarduerari afektaturiko produkzio-bideak edo giza baliabideak bere kabuz antolatzen.

2. Halaber, testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspenari dagokion zerga-oinarrian sartuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 59. eta 60. artikuluetan aipatzen diren etekinak, ondareko irabazi-galerak eta errenta-

artículo 87 de la Norma Foral del Impuesto de las Personas Físicas y en el artículo 67 del Reglamento de dicho impuesto.

**Tres.** Se da nueva redacción al artículo 9, que queda redactado en los siguientes términos:

#### **“Artículo 9. Determinación de la base imponible.**

1. A los efectos de determinar la base imponible del Impuesto correspondiente a la herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio, los rendimientos de las actividades económicas se considerarán obtenidos en todo caso por la herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio, en virtud de lo dispuesto en los artículos 59 y 60 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas con independencia de que la herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio no cumpla el requisito de participar de manera personal, habitual y directa en la ordenación por cuenta propia de los medios de producción y los recursos humanos afectos a las actividades económicas de que se trate.

2. Así mismo, se incluirán en la base imponible correspondiente a la herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio los rendimientos, las ganancias y pérdidas patrimoniales y las imputaciones de rentas a que se refieren los artículos 59 y 60 del



egozketak, artikulua horietan egozketa egiteko ezartzen diren arauak betez.»

Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas siguiendo las reglas establecidas en los mismos para esa atribución.”

**Lau.** Berridatzi egiten da 10. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

**Cuatro.** Se da nueva redacción al artículo 10, que queda redactado en los siguientes términos:

«**10. artikulua. Kuota osoan aplikatu daitezkeen kenkariak.**

“**Artículo 10. Deducciones de la cuota íntegra.**

Zergaren kuota likidua kalkulatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 51. artikuluko 8. zenbakian, 88. artikuluan eta 92. artikuluan ezarritako kuota-kenkariak aplikatu ahal izango dira, eta ez besterik.»

Únicamente resultarán de aplicación para calcular la cuota líquida del Impuesto las deducciones de la cuota establecidas en el apartado 8 del artículo 51, en el artículo 88 y en el artículo 92 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.”

**Bost.** Berridatzi egiten da 11. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

**Cinco.** Se da nueva redacción al artículo 11, que queda redactado en los siguientes términos:

«**11. artikulua. Saldo negatiboen, ondare-galeren, likidazio-oinarri negatiboen eta kuota-kenkarien konpentsazioa**

“**Artículo 11. Compensación de saldos negativos, pérdidas patrimoniales, bases liquidables negativas y deducciones de la cuota**

1. Ekonomia-jardueren ondoriozko etekinen saldo negatiboak, aurrezkiaren zerga-oinarriko etekinen saldo negatiboak, ondare-galerak, likidazio-oinarri negatiboak eta kuota nahikorik ez izateagatik aplikatu ez diren kuota-

1. Los saldos negativos de rendimientos derivados de actividades económicas, los saldos negativos de rendimientos de la base imponible del ahorro, las pérdidas patrimoniales, las bases liquidables negativas y



kenkariak soilik konpentsatu ahal izango dira testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspenari dagozkion ekonomia-jardueren ondoriozko saldo positiboekin, aurrezkiaren zerga-oinarriaren saldo positiboekin, ondare-irabaziekin, likidazio-oinarri positiboekin eta positiboak diren kuota osoekin.

2. Beraz, testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspena iraungitzen bada, dela ahalorde hori oso-osorik erabiltzeagatik, dela hura iraungitzeko beste arrazoietako bat gertatzeagatik, kausadunek –Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela-eta egin beharreko autoliquidazio pertsonaletan– ezin izango dituzte konpentsatu ez gauzatu jaraunspena iraungitzen den unean konpentsatu gabe dauden saldo negatiboak, likidazio-oinarri negatiboak eta ondare-galerak zein kuota nahikorik ez izateagatik aplikatu ez diren kuota-kenkariak.

Horrelakoetan, galdu egingo da jaraunspenaren azken zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autoliquidazioa egin ondoren konpentsatu gabe dauden saldo negatiboak, likidazio-oinarri negatiboak eta ondare-galerak konpentsatzeko eskubidea zein kuota nahikorik ez izateagatik aplikatu ez diren

las deducciones de la cuota no practicadas por insuficiencia de cuota únicamente podrán ser compensadas con saldos positivos derivados de actividades económicas, saldos positivos de rendimientos de la base del ahorro, ganancias patrimoniales, bases liquidables positivas y cuotas íntegras positivas correspondientes a la herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio.

2. En consecuencia, los saldos negativos, las bases liquidables negativas y las pérdidas patrimoniales pendientes de compensación y las deducciones de la cuota no practicadas por insuficiencia de cuota en el momento en que se produzca la extinción de la herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio por causa del ejercicio total del mismo o por la concurrencia de alguna de las demás causas de extinción de éste, no podrán ser compensadas ni practicadas por los causahabientes en sus autoliquidaciones personales a realizar por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

En tales supuestos, se perderá el derecho a la compensación de los saldos negativos, las bases liquidables negativas y las pérdidas patrimoniales no compensadas y a la práctica de las deducciones de la cuota no practicadas por insuficiencia de la misma, que quedaren pendientes una vez realizada la autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas



kuota-kenkariak aplikatzeko eskubidea.»

Físicas correspondiente al último período impositivo de la herencia.”

**Sei.** Berridatzi egiten da 12. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

**Seis.** Se da nueva redacción al artículo 12, que queda redactado en los siguientes términos:

**«12. artikulua. Aitortu beharra**

**“Artículo 12. Obligación de declarar.**

1. Testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspenak, betiere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko du, eta bere datu guztiak jarri beharko ditu autolikidazioan, berari dagozkion etekinen zenbatekoa eta iturria edozein dela ere.

1. La herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio estará obligada, en todo caso, a presentar autoliquidación por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, consignando la totalidad de los datos que le afecte contenidos en la autoliquidación, con independencia de la cuantía o la fuente de los rendimientos que le correspondan.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaindu behar duten gainerako zergadunentzat Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak foru-agindu bidez onetsitako eredu berberetan aurkeztuko da autolikidazio hori, eta zergadun guztientzat ezarritako arauak bete beharko dira.

2. La citada autoliquidación se presentará en los mismos modelos aprobados por Orden Foral del diputado foral de Hacienda Finanzas y con sujeción a las mismas normas que las establecidas para el resto de contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

3. Zergadunek, autolikidazioa aurkezten dutenean, zehaztu egin behar dute zein den beren zerga-zorra, bai eta ordaindu ere, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak kasuan kasuko zergaldirako zehazten dituen leku, era eta epeetan.

3. Así mismo, al tiempo de presentar su autoliquidación, deberán determinar la deuda tributaria e ingresarla en el lugar, forma y plazos establecidos con carácter general por el diputado foral de Hacienda y Finanzas para el período impositivo de que se trate.

4. Testamentu-ahalordea erabili gabe duen

4. El cumplimiento de las obligaciones



jaraunspenari artikulua honen aurreko zenbakietan ezarri zaizkion betebeharrak betetzea jaraunspenaren administratzailearen ardura izango da. Hala, bada, administratzaileak sinatuko du autolikidazioa eta berak egingo du zerga-zorraren sarrera.

5. Halaber, testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspenaren administratzailea zerga ordaintzearen erantzule subsidiarioa izango da.»

**Zazpi.** Berridatzi egiten da 13. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«13. artikulua. Beste betebeharrak formal batzuk zein beste kontabilitate- eta erregistro-betebeharrak batzuk

Testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspenak, gainera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren VIII. tituluko I. eta II. kapituluetan ezarritako betebeharrak formalak zein kontabilitate- eta erregistro-betebeharrak izango ditu, aplikagarriak zaizkion heinean.»

**Zortzi.** Berridatzi egiten dira 14. artikuluko 1, 2. eta 3. zenbakiak, eta honela geratu dira idatzita:

establecidas en los apartados anteriores de este artículo para la herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio corresponderá al administrador de la misma, que, en tal concepto, deberá suscribir la autoliquidación y se encargará del ingreso de la deuda tributaria correspondiente.

5. Así mismo, será subsidiariamente responsable del pago del Impuesto el administrador de la herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio.”

**Siete.** Se da nueva redacción al artículo 13, que queda redactado en los siguientes términos:

